

2017ko UZTAILAREN 4ko OSOKO BILKURAREN LABURPENA

1.- Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea.

2017/06/01ko akta onetsi da.

2017/06/28ko akta onetsi da honako zuzenketekin:

Agrupacion Ultzama Udal taldearen eskutik Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du akta honen laugarren orrialdean, EH Bildu Udal taldeak eskatuta bigarren akordio proposamenaren inguruko bere hitzak agertzen direnean, berak esan zuena zela "EH Bildu Ultzama taldeak orain eskatzen zuena, bere taldeak (Agrupacion Ultzama) eguneko gai zerrendan aurkeztu zuenaren proposamen edo puntu ezberdin bat zela".

Martinez Urionabarrenechea Alkatearen aldetik, akta honen inguruko hirugarren orrialdean, -prentsako iragarkiek izan zuten kostuaren inguruan berak esandakoa agertzen denean-, adierazi du "prezio horiek BEZa kontuan hartu gabe zirela".

2. Ultzamako udalak 2017ko maiatzaren 11ko osoko bilkuran hartu zuen erabakiaren kontra jarritako Berraztertzeke errekurtsuari emaniko erantzuna; erabakia abeltzaintzako mindan oinarriturik argindarra ekoizteko Iraizozko (Ultzama) 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpilurzatian kokaturiko planta eta Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Orokietako kontzejutan minda digerituak biltegitartzeko borts hobi egiteko obra publikoaren eta geroko ustiapenaren kontzesiorako kontratua amaitzeko espedientearen bigarren behin betiko onespeneri buruzko da, baita kontzesio administratiboaren kontratuarekin loturiko AKTIBOen balorazioari dagokion BIGARREN puntua behin betikoz onesteari buruzkoa ere.

Alkateak eta Idazkariak gaia azaldu dute.

Idazkariak bere aldetik aipatu du CAIXABANK errekurtsogileak, bere garaian erabakiaren prozesuan aurkeztutako alegazioen edukia berresaten duela, aktiboen balioespenaren ondoriozko diru kopurua finantza-etxe hartzekodunei abona dadin zuzenean (eta ez konkurtso asministrazioari), baita ere, kantitate horretatik ez dadila deskontatu BIOENERGIA ULZAMA SA emankidadunak sortutako kalte-galeren kopurua, Nafarroako Kontseiluak jada 2017/03/02ko 2017/8 zenbakia duen txostenean ebatzitako gaia, Ultzamako Udalaren irizpidearen alde.

Jarraian Agrupacion Ultzama udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du bere taldearen iritziz inondik inora ez zela kontzesioa amaitutzat eman behar, jadanik askotan adierazi duten kontua, eta eguneko gai zerrendako puntu honi dagokion haien botoa aurkakoa izango dela, baldin eta Udal Gobernu taldeak ez badu berriro ere Biogas plantaren kudeaketa lehiaketara ateratzea proposatzen eta berau berriro ireki, horrela

balitz, eguneko gai zerrendako puntu honen alde bozkatuko lukete. Amaitzeko galdetu du ea zergaitik egin duen txosten juridikoa Biderka aholkularitza juridikoak eta ea nork erabaki duen hori, oso ortodoxoa iruditu ez zaiolarik.

Martinez Urionabarrenechea Alkateak adierazi du, hain zuzen ere, txosten juridikoa Biderka aholkularitza juridikoak egin zuela eta bera izan zela berau enkargatu zuena.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Herranz, Oyarzun, y Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik, Udalbatzak puntu hau onartu du.

LEHENA.- Atzera botatzea birjartze errekurtsua, haren eskaeretako osotasunean.

BIGARREN.- Honako akordio hau "CAIXA BANK" errekurtsogileari helaraztea.

3. Alkateak ekainaren 22an emaniko 134/2017 Ebazpena berrestea. Ebazpena da "CAJA RURAL DE NAVARRA S Cop. de Credito" kutzak eta "SOCIEDAD PARA EL DESARROLLO DE NAVARRA (SODENA)" elkarteak Nafarroako Administrazio Auzitegian jarritako 17-01328 gora jotzeko errekurtsuari buruzkoa, eta errekurtsua Ultzamako Udalak 2017ko maiatzaren 11ko osoko bilkuran abeltzaintzako mindan oinarriturik gasa eta elektrizitatea ekoizteko plantaren obra publikoa eta ustiapena esleitzeko kontratua amaitzeko espedientean aktiboak likidatzeari buruzkoa.

Alkateak eta Idazkariak gaia azaldu dute.

Idazkariak bere aldetik aipatu du Nafarroako Rural kutzak eta SODENA errekurtsogileak bere garaian erabakiaren prozesuan aurkeztutako alegazioen edukia berresaten dutela, aktiboen balioespenaren ondoriozko diru kopurua haiei zuzenean abona dadila, finantza-etxe hartzekodun bezala, eta ez konkurtso administrazioari, Nafarroako Kontseiluak jada 2017/03/02ko 2017/8 zenbakia duen txostenean ebatzitako gaia, Ultzamako Udalaren irizpidearen alde.

Jarraian Agrupacion Ultzama taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta adierazpenak aipatutzat eman ditu aurreko eguneko gai zerrendako puntuan.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.

- Aurkako botoak: Herranz, Oyarzun, y Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik, Udalbatzak puntu hau onartu du.

4. Alkatetzak ekainaren 6an emaniko 121/2017 Ebazpena berrestea, Ultzamako udal igerilekuko instalazioetako taberna errentamendu bidez 2017. urteko udan lagatzeko espedienteari buruz.

Alkateak gaia azaldu du.

Aho batez erabaki da.

LEHENA.- 2017ko udaldian Ultzamako udal igerilekuetako taberna honako pertsona hauei alokatzea:

Maialen Larrayoz Alberro eta Paula Elizondo Barberena.

5. Alkatetzak ekainaren 2an emaniko 120/2017 Ebazpena berrestea, 2017ko udaldian Ultzamako udal igerilekuan ariko diren langileak kontratatzeari buruz; hain zuzen ere, 2 sorosle, mantentze- eta lorezaintza-lanetarako 2 langile, garbiketa- eta harrera-lanetarako langile bat, eta igeriketa-monitore bat.

Alkateak gaia azaldu du.

Aho batez erabaki da.

Hautagaien balioztapen zerrenda akta osoan.

6. Tokiko Garapen Agentzia CEDERNA-GARALUR elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onestea, 2014-2020 aldirako Landa Garapeneko Planaren erantzule administratibo eta finantzarioa izendatzeko eta haren kostua finantzatzeko.

Alkateak gaia azaldu du.

Aho batez erabaki da.

LEHENA.- Hitzarmena onartzea CEDERNA GARALUR garapen lokaleko agentziarekin 2014-2020 Landa eremuko garapenerako planaren finantziario administratiboaren arduraduna izendatzeko eta kostua finantzatzeko.

7. Ultzamako Udalarekiko hitzarmena onestea kirol dinamizatzailaren lanaldiaren %15ri dagokio kostea finantzatzeko.

Alkateak gaia azaldu du.

Aho batez erabaki da.

LEHENA.- Hitzarmena onestea Ultzamako Udalaren eta Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen artean.

8. Nafarroako Gobernuak, 2017ko maiatzaren 10ean harturiko erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea. Erabaki horren bidez Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak etzetsi zuen Ultzamako Udalak martxoaren 9ko 337/2017 Ebazpenaren kontra jarritako bide judiziala hasi aurreko errekerimendua, eta horrek bukatzen du 216.291,40 euro gehi interesen 44.159,74 euroak itzultzeko espedientea, Ultzaman biogasa eta elektrizitatea sortzeko minden tratamendurako planta mankomunatu bat eraikitzeko.

Alkateak gaia azaldu du.

Jarraian Agupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza, eta galdetu du ea Udalarentzat zenbateko kostua izan behar duen errekurtso honi dagokion lanak, ea aurrekontu partidarik dagoen honetarako eta lan honetarako ikerketa juridikorako legezko kontratazio prozedurarenbat jarraitu ote den. Bukatzeko adierazi du honen kostuak ez badu 6.000 euroko muga gainditu behar alde egongo liratekela, eta alderantziz bada araudi aplikagarriaren arabera kontratazio espediente egokia tramitatu dadila eskatu dute.

Idazkariak informatu du oraingo tramitea errekurtsoa iragartzea dela bakarrik, horretarako erabakiaren jakinarazpenetik bi hilabete daudelarik bakarrik eta geroago jasoko dela espediente administratiboa eta balioduneko hogeit eguneko epe bat emango da errekurtsoaren idazkia egiteko.

Martinez Urionabarrenechea Alkatearen aldetik erantzun da momentuz ez dagoela aurrekonturik, –aipaturiko arrazoiengatik- eta eskatuko dela, eta aipaturiko kopuruaren zenbatekoaren arabera jokatu dela eta behar bezala informatuko zaiela.

Amaitzeko Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du berriro hitza eta bere Udal taldeak akordio honen alde bozkatu behar duela iragarri du, Udalaren interesak babestearekin ados baitaude, are gehiago, pentsatzen dute azken finean plantaren itxierak eragin duen diru-laguntzaren itzuli behar izate egoera horretara ez litzatekela inoiz iritsi behar.

Aho batez erabaki da.

9. Alkatetzaren informazioak.

Martinez Urionabarrenechea Alkatearen aldetik, Biogas plantaren irekitzearen gaiari eta honen kudeaketan berriro lehiaketa publikora ateratzeari dagokioez, honako hau informatu zaie gainontzeko korporazioko kideei:

Ekainaren 17an bertaratu nahi izan dute abeltzain guztiekin bilera bat egin dute, Udaletxetik hauek guztiak abisatu direlarik, bai lehen plantan zeudenak eta baita kanpoan geratu zirenak ere.

Mundu guztiak bazekien bilera honen nondik norakoa eta AU Udal taldeko Oyarzun zinegotziari abisatu zitzaion.

Bakarrik 10 abeltzain agertu ziren eta zeuden aukerak azaldu zitzaizkien eta baldintza-agiria eta kontratazio-prozedura egin aurretik Udalak beraien iritziak eta eskaerak jakin nahi zituen, horrela, posible den einean baldintza-agiria eta kudeaketaren kontzesio baldintzak proposatzea.

Informatu zitzaion bere garaian bi enpresa zeudela interesaturik eta beraien bertan esan zutela mindaren bilketa prezioa orain arte bezala mantenduko litzatekeela.

Informatu zen, plantaren bideragarritasuna posible izateko, bere ahalmena nabarmenki txikiagoa izango zela, bertatik 6 kilometroko erradio bat ezarriko zelarik eta mindaz gain, Ingurumen-Departamentuak baimenduak dituen beste produktu batzuk tratatzea baimenduko litzatekela.

Gauzak horrela, orri bat eman zitzaion betetzeko eta beraien zalantzak edo eskaerak adieraz zitzaion eta epe bat eman zen hura udaletxean aurkezteko.

Azkenean, ez da inongo abeltzainen aldetik eskaera edo adierazpenik jaso plantara batzeari dagokionez, eta amaitzeko esan du egoera dagoen bezala dagoela eta abeltzainek ez badute minda plantara eraman nahi, honek ez duela zentzurik.

Jarraian Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta gai honen inguruan honako hau nabarmendu du: Bere aldetik ulertzen du abeltzainak gai honekin sinesgogor izatea, gertatu denaren ondoren eta gauden egoeran egonda; Bistakoa da plantak ezin duela funtzionatu mindarik ez badago, paradoxa bat delarik, lehen arazoa kontrakoa baitzen (minda gehiago zegoen); Gaia benetazko gertakari bat bezala planteatu beharko litzatekela –planta ireki behar da- aukera bat bezala planteatu beharrean, eta zihur horrela balitz, batek baino gehiagok izena emango lukeela konponbide honetarako; Arraroa egiten zaio abeltzainen jarrera hau, planta berriro irekitzen ez bada, ziur dago ustiapenen batean arazoak izan behar dituztela; Ulertzen du egoera, are gehiago, pedagogia egin beharko litzatekeela pentsatzen du....

EH Bildu Ultzama Udal taldeko Picabe zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du hain zuzen ere interesatuak egon zitezkeen abeltzain guztiei bidali zitzaizkela, norbait ezagutzen badute abisatzeko, karta hauei ere bidaltzeko, eta badirudi gai honen arazoa ematen dutena baino minda bolumen gehiago atera behar dutela dela eta ez datorkie ondo....

10. Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren 2017ko 109.ebazpenetik 135.era.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak, ekainaren 19ko data duen 132/2017 zenbakia duen ebazpenaren edukiari dagokionez, udaletxearen bigarren solairuan dagoen etxebizitza sozialaren alokairuai dagokiona, galdetu du ea honen hornikutza kostuak udalaren edo maizterraren kargu diren eta alkateak erantzun dio maizterraren kargu izango direla.

EH Bildu Ultzama Udal taldeko Doray zinegotziak, ekainareko 6ko 123/2017 zenbakia duen ebazpenaren edukiari dagokionez, Auzerabideko pistaren konponketa lanen kontratazioari dagokiona, aipatu du akats bat dagoela, hauen zuzendaritza ez baitu EKILAN SL ingeniari-tza estudioak burutu behar, Udalak berak burutu behar baitu, eta Idazkariak erantzun dio akatsa konponketaren diseinua definitua edo mendi lanen memorian diseinatua zegoela uste zuelako gertatu zela, ikerketa hau urtero egin ohi dela.

11. Mozioak.

1 Mozioa:

“ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean Diario de Navarra egunkariak argitaratutako informazioaren inguruko mozioa, Nafarroan editatutako egunkarietako espediente urbanistikoen gaineko iragarkien argitalpeneko legezko betebeharrari buruzkoa”

Proposamenaren premia azken egun hauetan aurreko ekainaren 28ko osoko bilkuraren inguruan Diario de Navarra egunkarian argitaratu diren albisteak ekarri du. Aipaturiko albisteetan jasotako informazioa erabat zalantzagarrria dela ulertzen dute, eta argibide zehatzak ematea beharrezkoa da. Honi dagokio mozio honen berehalakotasuna, gai hau Ultzamako auzotarren buruan baitago, eta lehenbailehen argitzea beharrezkoa da.

Mozio hau tratatu aurretik, beharrezkoa da honen premia eta urgentzia onartzea, Nafarroako Toki Administrazioaren 6/90 foru legearen, 81. artikuluaaren bigarren atalaren edukiaren arabera.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza, eta uste du ez dagoela halako premia edo urgentzia egoerarik jada aipaturiko Osoko Bilkuran bi proposamen bozkatu baitziren eta bere aldetik argitu ahal izan zen.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Herranz, Oyarzun, y Perez Arregui. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik, Osoko Bilkurak mozio hau tratatzeko premia edo urgentzia onartu du.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza berriro eta adierazi du premia edo urgentzia aho batez onartu ez denez ez dela posible eguneko gai zerrendako puntu hau tratatzea, honi alkateak erantzun dio Nafarroako Toki Administrazioaren 6/90 foru legearen, 81. artikuluaaren bigarren atalaren edukia irakurriz, honen arabera ez da ahobatezkotasunik eskatzen, korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa baizik, jada egin den bozketa.

Gauzak horrela, eta desadostasunarekin jarraituz Agrupacion Ultzama Udal taldeko hiru kideak Osoko Bilkura aretoa utzi eta joan egin dira, saioa, geratzen diren EH Bildu Ultzama Udal taldeko bost kideekin jarraituz.

Jarraian, Martinez Urionabarrenechea Alkatearen aldetik, aipaturiko mozio hau onartzera eraman duten arrazoiak argudiatzeari ekin dio, honako zentzuarekin: Informazio hauei dagokienez, nolabait deitzeagatik, imajinatzen du, eta horrela ez bada esango diote edo zuzenduko diote AU Udal taldeko kideak, haiek izan dira Osoko bilkuraren gaia Diario de Navarrara eraman dutenak, eta horregatik honako kontu hauek planteatu nahi ditu:

Guk (EH Bildu Ultzama Udal taldeko kideak), zein momentutan planteatzen edo adierazten dugu ekainaren 28ko Osoko Bilkuran Udal-Idazkariaren seinaleei entzungor egiten geniela? Inoiz!

Aurreko ekainaren 28an... ez al genuen informatu Osoko Bilkura batean adierazi zitzaigula iragarkia gutxienez prentsa komunikabide batean jarri behar zela? Inongo momentutan ez zen oztopo edo komunikaziorik egon beste modu batera egin behar zela, horrela ez balitz ez litzateke horrela jokatu. Erantzuna BAI da; Zalantzarik gabe komunikatzen dugu.

Ez al genuen informatu aurreko Osoko Bilkuran, berriro ere gaia atera zenean, kasu horretan Idazkariak Osoko bilkuran adierazi zuela gutxienez bi prentsa komunikabidetan argitaratu behar zela? Eta idazkariaren adierazpena ontzat eman zela? Eta Idazkaritzatik markatutako printzipioak jarraitzea agindu zela, honen irizpide juridikoak errespetatuz? Erantzuna BAI da. Argi eta garbi komunikatu zen!

Gastuaren handitzeari dagokionez, ez al genuen informatu 2016ko espediente urbanistikoaren goranzko nabarmena dela eta izan zela, 2015arekin alderatuta? Erantzuna BAI da. Argi eta garbi komunikatu zen!

Azkenik, azkeneko Osoko Bilkuran ez bazen argi geratu, azalpen bat eman nahi dugu: Guk ez genuen inongo Udal-Idazkariaren txostenik bozkatu. Agrupacion Ultzama Udal taldearen proposamen bat bozkatu genuen. Beste prentsa mota batean iragarkiak jartzeari ateak ixten zizkion proposamena hain zuzen ere, baita lokalari. Inongo legetan jasotzen ez den muga. AUK planteatutako jarrera itxi horregatik bozkatu genuen bere ekimenaren aurka, eta EH Bildu Ultzamatik beste proposamen alternatibo bat proposatu genuen non gaur egungo legea aldatzea proposatzen zen eta beste aukera batzuei ateak ireki.

Aho batez erabaki da.

Akordioaren testua akta osoan.

11. Eskaerak eta Galderak.

Ez da eskaera edo galderarik izan.